

JUAN ANTONIO MOGEL ETA URKITZA, BERE BIZITZA
TA LANAK. *Juan San Martin*. Euskaltzaindia'ren ardurapean.
Itxaropena Argitaldaria, Zarautz, 1959.

Ona emen igaz Eibar'en egindako Euskaltzaleen Biltzarren ondore atsegin bat. Billera aiek Juan Antonio Mogel Eibar'ko seme argiari eskeiñiak ziren ezker, bidezko asmoa zen euskal-idazle aren bizitza eta lanak euskal-liburu batean aztertzea. Bidezko asmo ori beste eibartar erne batek burutu du, Juan San Martin'ek, emen aurkezten dudan berrogeitamar orrialdeko liburu polit onetan.

Liburu ori "arrapataka batean" prestatu zuela dio egilleak itzaurrean. Eztu ezagun, iñondik ere. Liburua, bere laburrean, orrelako lanak egin bear diren bezalaxe egia dago, eta ezta ori gutxi esatea gure artean. Ezta egillea nekearen igesi ibilli, bear zuen iturrietara jo du berri-billa eta eztu irakurri bear zuen paperik, zaarrik naiz berririk, aztertu gabe utzi. Bildu dituen berriak, gaiñera, argi eta garbi azalduak daude.

Ona ikutzen dituen gaiak: Mogel'en bizitza, Mogel euskalari, Mogel euskal-idazle eta Mogel'en eta Mogel'ekiko bibliografia. Nai duenak badu, beraz, gaugero euskaldun andi orren berri jakiteko bide erraz eta eroso, San Martin'i eskerrak.

